

Prentsa oharra

Nota de prensa



Mugikortasun Plana eta Isuri Gutxiko Eremua (IGE) onartu eta IGEa arautuko duen ordenantza ere aurkeztu du Donostiak

Bi proiektuen behin betiko onarpena partaidetza eta alegazio prozesuak egin ondoren etorri da

Isuri Gutxiko Eremua arautuko duen ordenantza hasita dago dagozkion izapideak egiten

Donostiako Udalak datorren astean onartuko ditu, behin betiko, Hiriko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren eta Isuri Gutxiko Eremuaren proiektuak; amaitu baitira alegazioak aurkezteko epea eta proiektuak ontzeko egindako partaidetza prozesuak. Era berean, Isuri Gutxiko Eremua arautuko duen ordenantzari ere datorren astean emango dio hasierako onarpena.

Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotzi Olatz Yarzak eta Ekologiako zinegotzi Juantxo Marrerok azaldu dute Donostian urte honen amaieran izango den Isuri Gutxiko Eremua jartzeko izapideak zer-nola doazen.

Hala, alegazioak egiteko jarritako epean hainbat alegazio eta ekarpen jaso dira, bai Herritarren Postontziaren bidez, bai Erregistroaren bidez. Horietako 42 Isuri Gutxiko Eremuaren gainekoak izan dira, eta 33 Mugikortasun Planari buruzkoak. Alegazio horiez gain, Udalak iritzi zion inportantea zela proiektu horiei partaidetza prozesu batzuekin laguntzea hasiera-hasieratik; eta, hala, urtarrilean eta otsailean egin ziren partaidetza prozesu horiek. Horrela, prozesu horietan sortutako irudipenak, iritziak eta ideiak ere aztertu dira behin betiko dokumentuak egitekoan.

Orain, bi planak behin betiko onartu ondoren, ordenantza behin betiko onartzeko prozesuari ekin zaio, ordenantza izango baita Isuri Gutxiko Eremuaren proiektuan jasotako planteamenduak arautuko dituen tresna.

IGEren gaineko ordenantza

Donostian Airearen Kalitatea Hobetzeko, Klima Aldaketa Arintzeko eta Isuri Gutxiko Eremuak Arautzeko Ordenantzari ere asteartean emango dio hasierako onarpena Udal Gobernuak.

Isuri Gutxiko Eremuaren mugaketa eta seinaleztapena arautuko du ordenantzak; eta, hain zuzen ere, seinale horien behealdean adieraziko dira ibilgailuen ingurumen-bereizgarriaren arabera izango diren muga eta ual baimenaren araberako salbuespenak.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Ordenantzak izango dituen berrikuntzen artean, **10 kamera finko** jartzearena dago, ibilgailuak Isuri Gutxiko Eremura **sartzea kontrolatzeko**. Ibilgailuen matrikulak irakurriko dituzte kamera horiek, eta datu-base batean egiaztatuko dute matrikula horien arabera eremura sartzen utz dakiekeen edo ez. Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agenteek ere izango dute ibilgailuen matrikulak identifikatzeko modua.

Kamera horiek leku hauetan jarriko dira:

- Zurriolako zubia
- Santa Katalina zubia
- Gernikako Arbola / San Martin bidegurutzea
- Gernikako Arbola / Valentin Olano bidegurutzea
- Arabako Parkea / Easo bidegurutzea
- Autonomia kaleko biribilgunea
- San Roke / Belizalde bidegurutzea
- San Roke / Beloka bidegurutzea
- Aldapeta / La Fe bidegurutzea
- Mirakontxa pasealekua (Almudena etxea)

Isuri Gutxiko Eremuan baimenik gabe sartu edota ibiltzeagatik **200 €-ren isuna** ezarriko da, eta baita hori baino % 30 handiagoa ere araua behin baino gehiagotan urratzen duenari.

Isuri Gutxiko Eremuan sartzen edo ibitzen diren **ibilgailu motordun eta ziklomotor guztiek bete behar dute ordenantzan jarritakoa**. Ordenantzaren helburua airearen kalitatea hobetzea, emisio kutsatzaileak murriztea, herritarren osasuna babestea, klima-aldaketaren ondorioak eta trafikoak sortzen duen zarata arintzen laguntzea eta mugikortasun-modu jasangarriago baterantz egitea da.

Jakina denez, Isuri Gutxiko Eremua bi fasetan ezarriko da:

- **Hasierako fasea:** ordenantza indarrean sartu eta lehen 36 hilabeteak
- **Egonkortze fasea:** hasierako fasea pasa eta gero

Prentsa oharra

Nota de prensa



IGEan inolako izapiderik egin gabe sartu ahal izango dira bizikletak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak, CERO / ECO / C eta B bereizgarria duten ibilgailu motordunak eta ziklomotorrak eta DGTk historikotzat jotako ibilgailuak; eta baita Isuri Gutxiko Eremuan erroldatuta dauden egoiliarren ibilgailuak, MM bereizgarria duten mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuak eta jarduera ekonomikoei, taxiari eta BTKei lotutako TAO txartela duten ibilgailuak ere.

Era berean, eskaera eginda, beti, tartean-tartean edo aldian-behin sartu ahal izango dira: mugikortasun urriko Europako txartela duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuak (gehienez ere 2 ibilgailu pertsonako) eta interes orokorreko zerbitzuak emateko ibilgailuak (posta, garraioa, polizia, osasuna...). Orobat, Isuri Gutxiko Eremuan diren aparkalekuetako eta garajeetako plazen titularren ibilgailuek, eremuan diren autoeskolen ibilgailuek eta ibilgailuak konpontzeko tailerretara joaten direnek ere izango dute sartzeko modua.

Atzerriko matrikula duten ibilgailuen titularrek, sartu aurretik, erantzukizunpeko Atzerriko matrikula duten ibilgailuen titularrek, sartu aurretik, erantzukizunpeko adierazpen bat bete beharko dute, ibilgailuaren datuak, antzinatasuna, matrikulazio-data eta titularra ere adierazita.

Isuri Gutxiko Eremura sartzeko eskaerak Udalaren web-orriaren bidez kudeatu ahal izango dira (www.donostia.eus), edo aurrez aurre, Herritarren Arretarako ohiko kanalen bidez.

Isuri Gutxiko Eremua

Alegazioak aurkezteko epea amaitu eta Isuri Gutxiko Eremuaren Planari aurkeztutakoak aztertuta, 42 alegazio jaso dira. Batzuek, eskaera bat baino gehiago dute, eta behar bezala aztertu eta erantzun dira guztiak. Asko baztertu egin dira, hainbat arrazoiengatik, eta beste batzuk behin betiko testuan sartu dira.

Ekologiako zinegotzi Juantxo Marrerok adierazi du alegazio batzuk Isuri Gutxiko Eremua beste auzo batzuetara ere zabaltzea eskatzen zutela. "Ezetsi egin dira, IGE honek hiriko eremu jakin bat hartzen baitu, kilometro koadro inguruko eremua. Horrek ez du esanahi bihar-etzi isuri gutxiko beste eremu batzuk eratuko ez direnik hiriko beste leku batzuetan. Baina, oraingoz, ez dago hori aurreikusita. Eremu honek nola funtzionatzen duen ikusi behar dugu aurrena".

Juantxo Marrerok esan du, orobat, "Kaiaren ingurua berariaz sartu dutela eremuan, eta bai eta Arbaizeneko sarbidea eta ingurua ere, Isuri Gutxiko Eremuaren barruan preso

Prentsa oharra

Nota de prensa



gera ez daitezzen. Kaia Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko eremua da, eta horregatik ez zen sartu hasieran. Baina, juridikoki sartu daitekeela egiaztatu eta sartu egin dugu".

Onartu ez den alegazioetako bat motorrek Isuri Gutxiko Eremuan zirkulatu ahal izatearena da. Izan ere, ibilgailu motordunak dira motorrak, eta kutsatu egiten dute horiek ere; eta, gainera, datorren urtean --ordenantza ezarri eta aurreneko urtean--, muga horrek ez dio moto askori eragingo (20 urte inguru dituztenei bakarrik). Kontuan izan behar da IGEa ezarritako aurreneko fasean orain diren ibilgailu motordunen % 15i eragingo diela mugak (inolako ingurumen-etiketarik ez duten ibilgailuei).

"Onartutako alegazioetako bat 70 urtetik gorako egoiliarren ibilgailuei Isuri Gutxiko Eremuan sartzen uztearena da, ingurumen-etiketarik ez duten ibilgailuak izan arren", gaineratu du Ekologiako zinegotziak.

Mugikortasun Plana

Hiriko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren proiektuaz, bestalde, 33 alegazio jaso dira; herritarrek, elkarteek eta tokiko beste erakunde eta eragile batzuek eginak.

Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotzi Olatz Yarzak "herritarrei eskerrak emateko" baliatu du aukera, haren "Sailak landu duen planteamenduari egindako ekarpenengatik. Izan ere –esan du–, proiektua aberasteko eta gure hiriaren etorkizuneko mugikortasunari buruzko ikuspegi desberdinak biltzeko balio izan dute, eta gai garrantzitsua da, oso, mugikortasuna".

Hala ere, zinegotziak zera ere adierazi du: "Proposamenen azterketa zehatza egin ondoren, aurkeztutako alegazio guztiak ezin izan dira onartu; ez direlako mugikortasun plan baten eskumenean sartzen, beste plan batzuen baizik –hirigintza antolamenduarenean, adibidez-, eta ezta Udalari berari dagozkion eskumenetan ere –herriarteko garraio publikoaren berrantolaketa, esate baterako–. Ezetsi egin dira, orobat, teknikoki bideragarriak ez diren edo planaren helburuekin bat ez datozen beste alegazio batzuk ere".

Bestalde, aztertutako beste alegazio asko dira "lehen ere planean islatuta zeudelako baietsi direnak, nahiz eta ez duten aldaketarik eragin hasieran onartutako testuan; eta beste batzuk, berriz, balio erantsia ekarri dutenak eta, hala, azken idazketan sartu direnak dira" adierazi du Yarzak.

Azken horien artean dira 10 erakundek edo pertsona fisikok aurkeztu eta aldaketa batzuk ekarri dituztenak. Hor dira, adibidez, Satrustegi etorbideko erdiko lorategia Ondarretako lorategietan sartzeko bidea izatea hura berrantolatzeke garaian; gidatze

Prentsa oharra

Nota de prensa



efizientea sustatzearena ere sartzea taxi-zerbitzua hobetzeko neurrietan; gertuko aireportuetarako linea espezifikoak koordinatzea; desgaitasuna duten pertsonen zikloak erabiltzea sustatzea; Anoetako ekitaldietarako mugikortasun-plan espezifiko bat idazteko proposamena; Parte Zaharreko zamalanei buruzko alegazioak, eta garraio publikoaren irisgarritasun unibertsalari buruzkoak.

Hala, behin betiko testua onartu ondoren, Mugikortasun Plan berria izango da datozen 5 urteetako ibilbide-orria, mugikortasuna eraldatuz hiri erresilientea bultzatzeko, erronka sozial, sanitario, ekonomiko eta ingurumenekoei –globalei zein tokikoei– aurre egiteko prestatua, **mugikortasun ekitatibo, garbi, seguru, eraginkor eta osasungarria izateko.**

Donostia, 2024ko maiatzaren 9a

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostia aprueba su Plan de Movilidad y su ZBE, y presenta la ordenanza que regulará esta última

La aprobación definitiva de ambos proyectos llega tras el proceso participativo y de alegaciones

La ordenanza que regulará la Zona de Bajas Emisiones está ya en tramitación

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián dará la próxima semana su aprobación definitiva a los proyectos de Plan de Movilidad Urbana Sostenible y Zona de Bajas Emisiones, una vez que ha finalizado el plazo de alegaciones y han concluido los procesos participativos para cada uno de ellos. Además, la Junta de Gobierno Local aprobará también inicialmente la Ordenanza municipal que regulará la ZBE en la ciudad.

La concejala de Movilidad y Transporte Sostenible Olatz Yarza y el concejal de Ecología Juantxo Marrero, han dado cuenta de las fases en las que se encuentran cada uno de los trámites que permitirán implantar la Zona de Bajas Emisiones en Donostia a finales de este año.

Así, durante el plazo de alegaciones se han recibido diversas aportaciones con carácter de alegación sobre ambos proyectos, a través tanto del Buzón de la Ciudadanía como por registro; 42 referidas a la Zona de Bajas Emisiones y 33 al Plan de Movilidad. Además de estas alegaciones, el Ayuntamiento consideró desde el inicio del proceso que era importante acompañar estos proyectos con sus propios procesos participativos, que se llevaron cabo en enero y febrero de este mismo año. Así, las impresiones, valoraciones u opiniones y las ideas generadas en estos procesos han sido también analizadas tenidas en cuenta a la hora de realizar los documentos definitivos.

Ahora, tras la aprobación definitiva de ambos planes, se abre el proceso para la aprobación de la Ordenanza que servirá como herramienta para regular los planteamientos recogidos en el proyecto de la ZBE.

Ordenanza ZBE

La Ordenanza para la Mejora de la Calidad del Aire, Mitigación del Cambio Climático y Regulación de las Zonas de Bajas Emisiones en San Sebastián, se aprueba también el martes con carácter inicial por el Gobierno Municipal.

Prentsa oharra

Nota de prensa

En la ordenanza se regula tanto la delimitación de la ZBE como su debida señalización, en cuya parte inferior aparecerán las limitaciones en función del distintivo ambiental de los vehículos y las excepciones por autorización municipal.



Entre las novedades que recoge la ordenanza se encuentra la colocación de **10 cámara fijas para el control de los accesos** de vehículos a la Zona de Bajas Emisiones. Las cámaras leerán las matrículas de los vehículos, comprobando en la base de datos correspondiente la veracidad de los mismos para permitir o denegar el acceso. También los agentes encargados de la vigilancia del tráfico podrán identificar las matrículas.

Estas cámaras estarán colocadas en:

- Puente de la Zurriola
- Puente de Santa Catalina
- Cruce Pº Árbol de Gernika y San Martín
- Cruce Pº Árbol de Gernika y Valentín Olano
- Cruce entre el Parque de Araba y Easo
- Rotonda de la calle Autonomía
- Cruce calle San Roke y calle Belizalde
- Cruce calle San Roke y Pº Beloka
- Cruce calzada Aldapeta y Pº de la Fe
- Paseo de Miraconcha (Villa Almudena)

Las sanciones por incumplimiento tanto del permiso de circulación en la ZBE como de acceso a la misma **serán de 200€**, que podrían incrementarse un 30% en caso de reincidencia de la persona responsable.

Todos los vehículos a motor y ciclomotores que accedan o circulen por el ámbito de la ZBE **quedan sujetos a lo previsto en la ordenanza**, que busca mejorar la calidad del aire, reducir las emisiones contaminantes, proteger la salud de la ciudadanía, contribuir a la mitigar los efectos del cambio climático así como el ruido que genera el tráfico y avanzar hacia un modo de movilidad más sostenible.

Como es conocido, la implantación de la Zona de Bajas Emisiones se desarrollará en **dos fases**:

Prentsa oharra

Nota de prensa



- **Fase inicial:** los 36 primeros meses de la entrada en vigor de la ordenanza
- **Fase de consolidación:** pasada esa primera fase

A la ZBE podrán entrar sin necesidad de realizar trámite alguno: las bicicletas, vehículos de movilidad personal, vehículos a motor y ciclomotores CERO / ECO / C y B, vehículos históricos reconocidos por la DGT. Además, vehículos de residentes y empadronados en la ZBE o aquellos de personas de movilidad reducida con viñeta MM, vehículos con autorización OTA vinculados a actividades económicas, taxis y VTC.

De forma permanente, puntual o temporal también podrán acceder mediante solicitud: los vehículos destinados al traslado de personas con tarjeta europea de movilidad reducida (2 vehículos máximo por persona), los vehículos para la prestación de servicios de interés general (Correos, Transporte, policía, sanidad..). También aquellos vehículos de los titulares de plazas de aparcamiento o garaje en el ámbito de la ZBE, vehículos de autoescuelas ubicadas en el ámbito, y quienes acudan a talleres de reparación de vehículos.

Los titulares de vehículos con matrícula extranjera, previamente al acceso deberán cumplimentar una declaración responsable indicando datos del vehículo, antigüedad, fecha de matriculación y titular del mismo

Las solicitudes de acceso a la ZBE se podrán gestionar a través de la página web municipal **www.donostia.eus** o de modo presencial a través de los canales habituales de Atención Ciudadana.

Zona de Bajas Emisiones

Concluido el plazo de alegaciones y analizadas las presentadas al plan de Zona de Bajas Emisiones, se han recibido un total de 42 alegaciones, algunas con varias peticiones, que han sido debidamente analizadas y respondidas. Buena parte se han rechazado por diversos motivos y otras se han incorporado al texto definitivo.

El concejal de Ecología, Juantxo Marrero, ha señalado que algunas alegaciones iban en la línea de ampliar la Zona de Bajas Emisiones a otros barrios. “Se han desestimado entendiendo que la ZBE alcanza a una determinada zona de la ciudad, en torno a un kilómetro cuadrado, sin que ello impida a futuro crear nuevas zonas de bajas emisiones en otros puntos de la ciudad aunque, de momento, no están contempladas, a la espera de conocer el funcionamiento de esta primera”.

Marrero ha añadido que “sí se ha incluido expresamente la zona del Muelle de la ciudad, lo mismo que el acceso y entorno de Arbaizenea con el objetivo de evitar que queden cautivos. El caso del Muelle, por ser una zona de competencia del Gobierno

Prentsa oharra

Nota de prensa



Vasco no se había incluido inicialmente hasta comprobar que jurídicamente era factible”.

Entre las alegaciones que han sido rechazadas se encuentra la posibilidad de que las motos puedan circular por la ZBE, entendiéndose que son vehículos a motor que también contaminan y que el año que viene, primero de la implantación de la ordenanza afectará a un reducido grupo de motos, aquellas que tengan más o menos 20 años. Hay que tener en cuenta que en la primera fase de implantación de la ZBE se verán afectados un 15% de los actuales vehículos a motor, aquellos que carecen de cualquier tipo de etiqueta ambiental.

“Una de las alegaciones aceptadas es el permiso para entrar en la ZBE a vehículos de personas mayores de 70 años residentes, aún sin disponer de etiqueta ambiental”, ha añadido el concejal de Ecología.

Plan de Movilidad

Por parte del proyecto del Plan de Movilidad Urbana Sostenible, se han recibido un total de 33 alegaciones por parte de la ciudadanía, asociaciones y otro tipo de entidades y agentes locales.

La concejala de Movilidad y Transporte Sostenible Olatz Yaza ha aprovechado la ocasión para “agradecer a la ciudadanía sus aportaciones al planteamiento que se ha trabajado desde el departamento, ya que sin duda han servido para enriquecer el proyecto y recoger los diferentes puntos de vista sobre un tema tan importante como es la movilidad del futuro de nuestra ciudad”.

Sin embargo, tal y como ha señalado la concejala, tras el estudio minucioso de las propuestas, “no todas se han podido admitir, hemos tenido que desestimar aquellas que no entran dentro de la competencia de un Plan de Movilidad, sino de otros planes como por ejemplo los referentes a la ordenación urbana ni del propio Ayuntamiento, como es la reordenación del transporte público intermunicipal. También se han desestimado otras que no son viables técnicamente o no tienen encaje en los objetivos del plan”.

Por otro lado, entre las alegaciones analizadas hay otras muchas “que se han estimado debido a que ya estaban reflejadas en el propio plan, aunque no han supuesto cambios sobre el texto inicialmente aprobado, y otras que han aportado un valor añadido al mismo y se han incluido en su redacción” ha señalado Yaza.

Entre estas últimas se encuentran las presentadas por 10 entidades o personas físicas, que han supuesto cambios como la posibilidad de incorporar el jardín central de la

Prentsa oharra

Nota de prensa



avenida Satrustegi a los Jardines de Ondarreta en su futura reordenación, la promoción de la conducción eficiente entre taxistas dentro de las medidas para la mejora del servicio del Taxi, la coordinación de líneas específicas a los aeropuertos cercanos, el fomento del uso de ciclos entre las personas con discapacidad o la propuesta de redacción de un plan de movilidad específico para los eventos en Anoeta, entre otras relativas a la carga y descarga en la Parte Vieja o la accesibilidad universal en el transporte público.

Así, una vez aprobado el texto definitivo, el nuevo Plan de Movilidad será la hoja de ruta de los próximos 5 años para impulsar, a través de la transformación de la movilidad, una ciudad resiliente, preparada para hacer frente a los desafíos sociales, sanitarios, económicos y medioambientales, tanto globales como locales, **logrando una movilidad equitativa, limpia, segura, eficiente y saludable.**

Donostia / San Sebastián, 9 de mayo de 2024